



Astxikiko XII. mendeko gazteluaren errekreazio birtuala egin dute

Abadiño • Iñaki Sagredo historialariak eta bere lantaldeak egin dute ikerketa. Maiatzaren 23an, 18:30ean, herritarren aurrean aurkeztuko dute, Txanpota kultur etxean. Ekainaren 8rako irteera antolatu dute Astxikira. • **10**

Eneko Sagardoy 'Karmele' filmean murgilduta



Elkarrizketa • Erroma, Caracas, Madril, Bilbo, Paris zein bere sorterrria. Eneko Sagardoy aktore eta antzezle durangarra geratu barik dabil batetik bestera lanean. Berdin nazioarteko telesailetan, Euskal Herriko filmetan zein antzokietako oholza gainean. Orain 'Karmele' euskarazko pelikula filmatzen eta 'Emakume baten borroka eta metamorfosia' eta 'Munduaren amaiera baino ez' antzezlanak jokatzen dabil han-hemenka. • **2-3**

UCI mailako mendi bizikleta proba egingo dute domekan Abadiñon

Abadiño • Green Series zirkuituko probak goi mailako ziklistak ekarriko ditu Zelaietara, UCIren C2 kategoria duela-ko aurten. • **26**

HOME SCHMIDT HOME



MAIATZAREN 2tik 31ra
UDABERRIKO ESKAINTZAK

%20-ko DESKONTUA
ZURE ALTZARIETAN



Eneko
Sagardoy Mujika

Aktorea

DURANGO | 1994

ASIER CORERA

“Gustura nabil hara eta hona ibiltze horretan, eta momentu honetan gogo handia dut horretarako”

Ikus-entzunezkoetako eta antzerkiko lur aldakorretan eroso. Halantxik dabil Eneko Sagardoy, bidea egiten, bidez ikasten. Eta ikusleak gozarazi adina gozatzen

ELKARRIZKETA • EKAITZ HERRERA

Zineman orain, antzokiko oholztan gero, telebistan laster, eta tarte bat duenean bere ekoizpen propioak sortzen. Euskaraz orain, gaztelaniaz gero, eta ingelesez ere bai laster

ikusiko dugun *Those about to die* nazioarteko telesailan. Berdin Bilbon, Parisen edo Madrilen. Eta berdin Italian, Venezuelan zein bere sorterrian. Halantxik dabil Eneko Sagardoy Mujika aktore eta antzez-

lea (Durango, 1994), batetik bestera, jo eta ke lanean. Egunotan, Asier Kixi Altuna zinemagileak zuzenduriko *Karme*le pelikula filmatzen dabil, Kirmen Uribe idazlearen *Elkarrekin esnatzeko ordua* eleberrian oinarrituriko filma. Sagardoy Txomin Letamendi musikari eta espioiaren rola jokatzen du bertan. Jone Laspieur aktoreagaz batera osatuko du istorioko rol nagusia, Eresoinka talde kulturaleko *Karme*le Urresti pertsonaia gorpuzten duen aktoreagaz batera. Horrez gainera, *Lucha y metamorfosis de una mujer* eta *Tan solo el fin del mundo* antzezlanak ditu esku artean.

Kazetaritzan ohikoa den joerari jarraituta, azken ordukoari buruz galdetu beharrean nago. Zein da azken ordua? Non harrapatu zaitugu?

Atzo goizean *Karme*le filmeko eszenaririk esanguratsuenetarikoa bat filmatu genuen Bilbon. Arratsaldean Arriaga antzokian izan nintzen

Lucha y metamorfosis de una mujer antzezlanak jokatzen. Eta orain, goiza libre samar dudala, tronpeta jotzen ikasten nabil [Sagardoyk gorpuzten duen *Karme*le filmeko pertsonaia tronpeta jotzen du]. Arratsaldean berriro izango naiz Arriaga antzokian.

Zelakoa ari da izaten *Karme*le pelikularen filmazioa?

Egia esanda, oso gustura nabil. Oso pozik joaten naiz filmazioetara, oso dibertigarria da. Bikote baten urte luzeetako maitasun istorioa kontatuko dugu, oso eszenatoki desberdinetan. Bilbon, Parisen (Frantzia) eta Caracasen (Venezuela), adibidez. 1930eko hamarkadako azken urteetan eta 1940ko hamarkadako lehenengo urteetan giroturiko istorioak eta eszenatokiak dira. Oso esperientzia ederra izaten ari da.

Orain etxeko istorio bat kontatzeko lanetan zabilta, etxean bertan. Baina orain urtebete Italian izan zinen *Those about to die* telesaila, European Amazon Prime Videok estreinatuko duen ikus-entzunezkoa filmatzen. Zelako esperientzia izan zen halako super ekoizpen batean parte hartzea?

Esperientzia ikaragarria. Ingelesez lan egiten nuen lehenengo aldia izan zen. Gainera, beste herrialde batean hainbeste denboran bizitzea berria zen niretzat. Ia bederatzi hilabete egin nituen han. Eta gero, gauza berria izan zen hainbesteko aurrekontua duen ekoizpen ikaragarri batean lan egitea. Gauza berri asko etorri zen batera, eta asko ikasi nuen horregaz. Gainera, dibertigarria ere bazen. Bazirudien jolas parke moduko batean nabilela. Izan ere, egunero-egunero animaliak genituen inguruan, erromatarren zirku bat... Entretengarria izan zen.

Zein rol jokatzen duzu *Those about to die* telesailan?

Nik jokatu dudana pertsonaia erromatarren garaiko Hispania Baetica hartatik Erromara doan zaldi hezitzaile batena da. Gero, Erroman dagoela bere anbizioak jota, pertsonaia auriga bihurtzen da. Hau da, zirku erromatarrean lau zaldi gidatzen dituen koadriga gidaria.

Zelan egokitu zara super ekoizpen horretarako?

Ekoizpen handi bat izatera dena biderkatzen da. Bertan esku hartzen duen jende kopurua, efektu bereziak, cateringa... dena da handia, baina ekoizpenaren funtsa beste edozein ekoizpenen antzekoa da. Egokitzapen horretan zuzendariaz, aktoreekin eta abarrekin hartu emana egiten zoaz. Lehenengo egunetan egokitzapen hori egiten duzu eta hortik aurrera dena izan da normaltasuna. Telesaila Peacock etxeak estreinatuko du AEBetan, uztailan. European Amazon Prime Videok estreinatuko du, aurten

dirudienez, baina ez dago data zehatzik.

Telesailako aktoreen artean nazioarteko aurpegi ezagunak daude. Tartean, Anthony Hopkins. Galdera horia: zelakoa da?

Egia esaten badizut, ez dut beragaz egoteko aukerarik izan. Telesailako eszenetan bat egiten dugun arren, filmazioan ez genuen fisikoki bat egiten. Egun desberdinetan grabatu genituen eszenak. Baina, daki-danagaitik, oso pertsona hurbila da, oso profesionala. Eta oso aktore ona.

Zure lanbideak Italiara, Caracasera, Bilbora, Madrilerara, Pariserara... eraman zaitu. Batetik bestera ibiltze horretan, ohitu ere egingo zinen bizimodu nomadara.

Bai, baietz esango nuke. Gero, dirudiena baino errazagoa da. Bidaia asko ditut, hori egia da, baina, gutxi gorabehera, horrela nabil hasi nintzenetik. Iruditzen zait momentu honetan ezingo nintzatekeela lantoki finko batera edo ordutegi egonkor batera ohitu. Honeguz ez dut gure lanbidea mitifikatu gura, hara eta hona ibilita beste gauza batzuk ere galtzen ditugu eta. Hartu

“Gogo eta ilusioa sortzen dizkidan alaez, horren araberrakoa da proiektu bat aukeratzeko erabakia”

emanak mantentzea edo egunero-kotasun bat izatea, esaterako, gatxa gertatu daiteke, baina gero beste gauza asko ere irabazten duzu. Adibidez, jende asko ezagutzeko aukera, leku berriak ezagutzeko aukera. Oraingo, gustura nabil horrela. Beharbada urte batzuk barru ez, baina momentu honetan gogo handia dut hara eta hona ibiltzeko. **Ezgonkortasun hori izan ote daiteke sorkuntzarako sena eta txinparta mantentzeko tresna?**

Ezetz esango nuke. Sorkuntzarako sena hori zeure barruan duzu. Hau da, nonbaitera bidaiatzen baduzu, leku hori inspirazio iturri izan daiteke. Baina inora bidaiatu barik hemen geratzen bazara, inspirazioa topatuko duzu, betiere zeure barruan sorkuntzarako sena hori mantentzen baduzu. Niri, adibidez, etxean lan eta lan aspertuta egon izan naizenetan sortu zait sena hori. Horrenbestez, kanpora noanean hangoagaz gozatzen egoten naiz. Eta, beharbada, handik hilabetera etor dakidake sorkuntzarako sena. **Zure atera ailegatzen diren proiektu eta proposamenen artean, zeren arabera erabakitzen duzu batez aurrera egin eta bestea baztertu? Zeren arabera aukeratzeko dituzu proiektuak?**

Segun. Zinema asko egin badut, antzerkia lantzeko gogoia izan dezaket. Eta alderantziz ere bai. Oinarri-oinarrian, proiektuak gogoia sortzen didan ala ez, ilusioa eragiten didan ala ez, horren araberakoa izaten da erabakia. Eta gero beste gauza asko ere ipintzen da mahai gainean: zuzendaria nor den, gidioa zein den, lankideak nortzuk diren, lana non den, soldata zein izango den, zein produktu klase den, esposizio maila bat ala bestea emango didan... Batzuetan elementu horiek guztiak neurtzen zoaz, baina, funtsean, erabakia hartzera bultzatzen zaituzten alderdirik esanguratsuenak ilusioa eta gogoia dira. Hau guzti hau proiektuak datozkizunerako da balagarria. Ezer ez dagoenean, ostera, datorrenari heltzen diozu. Baina, egia esanda, azken urteotan, neurri batean behintzat, handik eta hemendik aukeratu ahal izan dut.

Irati, Errementari, Handia, 80 egunean, Amama, Loreak... film batzuetan parte hartu duzu, beste batzuetan ez, baina azken urteotako ekoizpenak dira guztiak. Euskarazko zinemagintzaren loraldi batean gaude?

Ez dakit! Egia esanda, kazetariak hamar urte daramatzazue galdera hori berori egiten (barrez). Eta iru-

ditzen zait hamar urtean galdera hori berori formulatzen ibiltzea ezezkoa pentsatzeko sintoma oso argia dela. Badirudi ez garela horretara ohitu edo ez dugula horretan sinesten. Iruditzen zait loraldia baino zerbait gehiago dela. Industria bati buruz eta euskarazko ekoizpenen jarraikortasun bati buruz berba egiten hasi gaitezke. Eta, era berean, autokritika apur bat egin eta errealitatera itsasi behar dugulakoan nago. Izan ere, loraldi horretatik irteten diren guztiak harribitxiak direla dirudi. Eta ez da horrela. Pelikula onak eta eskasak egiten dira. Beraz, ez dut sentitzen loraldi bat dagoenik. Gero, egia da 2011. urtea baino lehenago apenas egiten zela euskarazko zinerik. Orain, ostera, hamahiru urtera, beste leku batean gaude. Bestalde, egon daitekeen beste loraldi bat filmazioak hemen egiteari loturikoa da, horretarako dauden pizgarri ekonomikoak direla kausa.

Sare sozialen garaiotan, esposizio mediaticoa etenbakoa den honetan, non hartzen duzu babes?

Orain dela urte batzuk, elkarrizketetan, jaietan zein galetan, ahalik eta gutxien agertzeko erabakia hartu nuen. Normalean ez naiz horietara joaten, eta proiekturik ez dudanean ez naiz askotan ager-



Eneko Sagardoy eta Jone Laspiur aktoreak Asier Altuna zuzendariaren argibideak jasotzen 'Karmele' filmean. DAVID HERRANZ

tzen publikoki. Oso trankil bizi naiz horrela. Sare sozialak nire lanak promozionatzeko baino ez ditut erabiltzen, eta oso eroso sentitzen naiz horrela.

Etxera etorrita, bada zuretzat inportantea den helduleku bat: Ander. Eta beragaz batera sortu duzu Sumendi filmak ekoiztetxea.

Zortekoa naiz. Anaia oso argia da, oso langilea eta oso maitagarria. Ander ere industria honetan

sartu zen orain urte batzuk. Bere proiektuetan hasi zen, Irusoin ekoiztetxean dago eta Sumendi filmak ekoiztetxea dugu elkarrengaz. Gogotsu gabiltza, martxan. Honek lanbide honetako beste arlo bat lantzeko aukera ematen du, kameretatik kanpora. Ekoizpenak egitea, proiektuak sortzea, diseinatzea... Ni arlo artistikoaz arduratzen naiz, eta Ander paper kontuez, finantziario bideak lor-

tzeaz. Proiektu hori partekatzea oso polita da. Barre ugari egiten dugu.

Eta elkarrizketa etxean amaitzeko, zer esango zenieke Durangaldeko irakurleei?

Laster Durangon izango naiz, *Lucha y metamorfosis de una mujer* obra euskaraz estreinatzen (*Emakume baten borroka eta metamorfosis*). Urrian izango da. Beraz, egin tokia agendan!

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa

#LanerakoGertu

ATE IREKIAK

Maiatzak 4

11:00etan

Eman izena!



MGEP: 664298683 // 664298704

mondragon.edu/lanbideheziketa

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Aurrerantzean Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko du Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kartzelotako presoei euskara eskolak emateko ardura, modu ofizial eta presentzian. Horrenbestez, irakasle taldeak amaitutzat eman du bere ibilbidea.

Presoen Euskara Irakasle Taldeak amaitutzat eman du bere ibilbidea. Zergaitik?

Arkaitz Zarraga: Espetxeetako euskara klaseak Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzea lortu dugulako. Hemendik aurrera, klaseak euskaltegiek emango dituzte, HABEren bitartez, modu ofizialean.

Noiz hasi zineten eskolak ematen?

A.Z.: Gurea sei edo zazpi urte iraun duen bidea da. Bederatzi ikasleaz eta zortzi irakasleaz hasi ginen, EGA sasoian. Preso bakoitzak bere irakaslea zuen. Gutun bidez, telefono deiren bat familiari kenduta, bisitaren bategaz, horrela hasi ginen. Eta hara, bederatziek gainditu zuten EGA. Bigarren urtean, gure harridurarako, 45 presok eman zuten izena B1, B2, C1 eta C2 azterketetara aurkezteko. Euskaltegiotako irakasleei deialdi bat egin genien eta 45 kide agertu ziren prest eskolak emateko.

Urte hauetan guztietan zenbat preso eskolatu dituzue?

A.Z.: 60 bat ikasle eta beste horrenbeste irakasle. Presoetarikoz batzuk B2 mailan hasi ziren klaseak hartzen, eta C2raino ailegatu dira. Beste batzuek maila txukun bat lortu gura zuten, eta beste batzuek

“Presoei euskara ikasteko ukatu zaien eskubidea betetzen ahalegindu gara”

Unai Uribe, Irati Landa, Igor Landaluze, Arkaitz Zarraga eta Esther Garitaonandia Presoen Euskara Irakasle Taldea osatzen duten kideetarikoz batzuk dira. Hainbat urtean ibili dira kartzelotako presoei euskara eskolak urrutira ematen



Unai Uribe, Irati Landa, Igor Landaluze, Arkaitz Zarraga eta Esther Garitaonandia.

euskaragazko kontaktua mantendu. Azken finean, helburua ez zen titulua lortzea bakarrik. Dispersioak sortzen zuten urrutze horretan, euskaratik urrutze bat ere bazegoen. Orduan, hau guzti hau, euskara atetik ez, baina leihotik sartzeko modu bat izan da.

Unai Uribe: Presoari ukatu zaion

eskubide bat, ahal izan dugun moduan, kostata, betetzen ahalegindu gara. Euskara ikasteko eskubide ukatua berreskuratzen ahalegindu gara esango nuke.

Irakasle bakoitzak preso bat zuen ikasle. Zelakoa zen hartu-eman?

Esther Garitaonandia: Nik, adibidez, ez nuen ikasleaz kontakturik

izan. Bere bikotekidearen bitartez kudeatzen genuen dena. Beragaz geratuta, materiala zelari bidali, berba eginda. Baina presoagaz ez nuen sekula barbarik egin.

U.U.: Nik ere ez. Hartu-eman gutun bidezkoa baino ez zen. Material sorta bat batzen genuen, baina baziren mugak. Entzumen edo

mintzamen trebeziak ezin ziren behar zen moduan landu. Ikasleak jasotzen zuten materiala mugatuta zegoen. Adibidez, ezin zen CD bat sartu. Ikasleak materiala jasotzen zuten lehenengo, gero landu egiten zuten, eta, azkenik, egindako lana guri bidaltzen zigun. Pentsa, denbora tarte hori hilabetekoa izan zitekeen. Askotan familiako bitartekariren bategaz lantzen genuen gure arreta.

Irati Landa: Bai, nik ere ikaslearen feedbacka bitartekari horrengandik jasotzen nuen. Batzuetan gutunak ez ziren ailegatu, eta ez nekien ondo egiten ote nabilen, berak materiala jasotzen ote zuten...

Esperientzia honek guzti honek zer ekarpen egiten dio irakasleari?

Igor Landaluze: Norbere lan orduetatik kanpora egindako lan estra bat izan da, baina asko ematen dizuna. Beharizan bat zegoen, eta hori bete egin dugu. Espainiako estatuko beste puntan kartzelaratuta zegoen preso bategaz eta familiako kide bategaz hartu-eman izateak asko bete nau. Eta emaitza akademikoak itzelak izan dira. Oso ikasle onak izan dira, eta oso-oso esker onekoak. Horrek asko asebetetzen du.

Durangarrek maiatzaren 19ra arteko epea izango dute aurrekontu parte hartzaileetarako ideiak aurkezteko

Udalak 200.000 euro erabiliko ditu 2025eko aurrekontuan herritarren ideiak txertatzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak martxan ipini du 2025eko aurrekontu parte hartzaileak prestatzeko prozesua. Maiatzaren 2an zabaldu zuten prozesuko lehenengo atala, herritarren proposamenak jasotzeko dagokiona. Duranga-

rrek datorren urteko aurrekontu proiektuak proposatu ahal izango dituzte, 200.000 euroko mugagaz. Horrez gainera, udalak beste 600.000 euro bideratuko ditu "auzoetako proposamenak lotzeko". Herritarrek maiatzaren 19ra arteko epea izango dute

ideiak partehartu.durango.eus web orriaren bitartez helarazteko. Durangoko Udalak argitu du proposamenek interes orokorrekoak izan beharko dutela, "hala nola hiri hobekuntza, kultur egitasmo edo merkataritza sustapena" helburu dutenak.



Jesica Ruiz alkateordea eta Mireia Elkoroiribe alkatea.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko maiatzaren 3a
22. urtea - 977. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Haur minbiziaren kontrako jaialdi solidarioan masiboki parte hartzera deitu dute

Maiatzaren 12an egingo da, kaleetan eta Landako Gunean



Antolatzaileak eta udal ordezkariak, jaialdiarako landatu duten gingko biloba arbolaren aurrean.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hasita dago atzera kontaketa. Maiatzaren 12an elkartasunez beteko dira Durangoko kaleak. La Cuadri del Hospi elkarteak *Gu be zuek gara* jaialdia antolatu du,

umeen minbiziari aurre egiteko jaialdi erraldoia. Gaixotasuna ikusgai egin eta kontzientziazioan eragiteaz gainera, jaialdiak helburu zehatz bat du: funtsak batzea haur minbiziaren kontrako

ikerketak finantzatzeko. "Behar zaituztegu. Super deialdi bat egin gura dugu maiatzaren 12an Durangoko kaleak marea urdin bagaz betetzeko. Dohaintzarik txikienez ere haur minbizidunei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hornitzen lagunduko dute", azaldu du Susana del Amok, La Cuadri del Hospi elkarteak kideak. Mireia Elkororibe alkateak ere inplikazioa azpimarratu du. "Jaialdian masiboki parte hartzera deitu gura dūt herritarrak, durangarron bereizgarri den ezaugarri solidario eta parte hartzaileagaz eragitera. Gaintitu dezagun gaixotasuna denok elkarrekin, laguntza emanez, maitasunetik", adierazi du. Era berean, alkateak herriko eragile guztien inplikazioa eskertu du.

Asko izango dira jaialdi solidarioan laguntzeko moduak. Errazena eta sinbolikoa, honako hau: La Cuadri del Hospi jaialdiarako propio kaleratu duen kamiseta urdina erosi eta egunean zehar jantzita erotea. Durangoko ikastetxe, elkarte eta kirol talde ugari dabil kamisetaren salmenta dinamizatzen. Bestalde, egunean zehar asko izango dira laguntzeko moduak. Musika, ile-mozketa solidarioak, txosnak eta umeentzako ekintza ugari egongo dira.



Berbarok bere 30. urteurrena ospatzeko ateratako argazkia.

Berbarok 35. urteurrena ospatuko du maiatzaren 31n

'Bagara nor' lelopean ospatuko dute urtemuga

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Berbarok bere 35. urteurrena ospatuko du maiatzaren 31n. Hori dela eta, eguna agendan gordetzera deitu dute: "Egun zehatz batean zentratuko dugu urteurreneko ospakizuna, eta ospakizun egunak Durangoko euskaltzale guztien eguna izan gura du", adierazi dute. Urteurrenerako egokia den leloa aukeratu dute, gainera: *Bagara nor*. "Euskaraz bizitzeko eta euskararen alde lan egiteko harrotasun

eta aldarrikapenean ipini gura dugu arreta: euskaldunok bagara nor, euskaltzaleok bagara nor eta berbarotarrok bagara nor", azaldu dute elkartetik. 1989a mugarriz izan zen Durangoko euskaltzaleentzat. Urte hartan sortu zen Berbaro, euskaraz bizitzeko zegoen zailtasunagaz kezkatutako aktibista batzuen eskutik, herria euskalduntzeko helburuagaz. Elkarteak ibilbide oparoa egin du ordutik.

Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkateak bilera zabalak hasiko ditu herritarren iritzia eta iradokizunak jasotzeko

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkatea herritarrekin bilera zabalak egiten hasiko da hile honetatik aurrera, haien iritzia eta iradokizunak aurrez aurre ezagutzeko. Alkatetzako bulegoan hartuko

ditu herritarrak, martitzenetan, 11:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 19:00etara. Udalaren esanetan, honako hau egitasmo berria da Zaldibarren. "Gobernu taldeak herritarren parte-hartzea sustatzeko eta bizilagunekiko gardentasuna

handitzeko duen konpromisoaren zati da. Udaletxeko ateak zabalak daude. Bizilagunek lasai berba egiteko tarte bat izango dute, herria hobetzen lagunduko duten ideiak eta iradokizunak partekatu", adierazi du Eneritz Azpitarte alkateak. Hitzordua 946 827 016 telefonora deituta eta zaldibar@zaldibar.eus helbidera idatzita eskatu daiteke. Eskatzaileek izen-abizenak eman eta alkateagaz landu gura duten gaia zehaztu beharko dute.



Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkatea.



IKASTETXE PUBLIKO DOAKOIA

www.uni.eus

LANBIDE HEZIKETA 2023-24

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 6tik 24ra

UNI EIBAR ERMUA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAIALA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

JARDUERA FISIKOAK ETA KIROLAK

MERKATARITZA

INFORMATIKA

ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | idazkaritza@uni.eus | [@uni.eus](https://www.instagram.com/uni.eus)

Iurretako Maiztegi eskolako 35 ikaslek Zaldeiko ibaiertza garbitu dute, bertatik hainbat hondakin batuta

Eskola Agenda 2030 programako ekintza honek udalerrria hobetzea du helburu eta joan zen ikasturtean egindako udal diagnostikoa izan dute oinarri; ibaiertzean baturiko hondakin guztiak ikastetxera eroan zituzten

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Maiztegi herri eskolako 35 ikaslek Zaldeiko ibaiertza garbitu zuten joan zen apirilaren 24an. Eskola Agenda 2030 programaren barruan garbitu zuten, Aita San Migel plazaren inguruan, joan zen ikasturtean egindako udal diagnostikoa oinarri hartuta. Halantxik jakinarazi dute udal arduradunek.

Udalerrria hobetzea helburu hartuta, ikasleek ekintza eraldatzaile bat egin behar zuten. Bada, herriko ibai bat garbitzea erabaki zuten. Maiztegi herri ikastetxeko eta Juan Orobiogitia BHIko ikasleek udal

Maiztegi ikastetxeko ikasleek hainbat hondakin batuta zuten, "horrek dakarren ingurumen-onurarekin". Eta "gozatu" egin zuten ekintzagaz, udal ordezkarien berbetan. Oskar

Koka alkatea ere bertan izan zen, "prozesua ikusi eta ikasleak animatzeko". Hondakinak ikastetxera eroan zituzten, "gainerako ikasleek, irakasleek eta senideek ikusi zitzaten". "Txarto kudeatuz

gero guk kontsumitzen ditugun produktuen hondakinek non amaitu dezaketen hausnartzeko balio dezake", esan zuten. Juan Orobiogitiako ikasleek geroago egingo dute antzeko ekintza bat.



Iurretako Maiztegi herri eskolako ikasleak, ibaiertza garbitu eta gero.

Maiztegi herri eskolako umeeek ibaiertza garbitu dute Aita San Migel plaza inguruan

foroan ekintza aurkeztu ondoren, udalari laguntza eskatu zioten dena martxan ipini ahal izateko, ohar batean azaldu dutenez.



Dantzariak, bertsoak eta Herri Maite taldea Goiuriako Santi Kurutz jaietan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Goiuria auzoan Santi Kurutz jaiek ospatuko dituzte asteburuan. Gaur Maiztegi eskolako umeen dantza saioa egongo da, 17:30ean, eta 19:00etan Herri Maite taldeak joko du. 20:00etan Bizkaiko taldekako bertso saioa (Urruxarrak-Zapatilapeko txikiek) hasiko da.

Bihar Iurretako dantzarien saioa izango da, 12:30ean, eta 14:30ean kantu bazkaria egingo dute, Egundo I taldeagaz. Kofradien Batzordeak antolatuta, autobusak egongo dira: 12:00etan Maspetik Goiuriara; 14:00etan, 17:00etan eta 20:00etan (Maspe-Goiuria-Maspe), eta 01:00etan (Oromiño-Maspe).



Atxondoko Udalak igerilekuko tasak eguneratu ditu

Igerilekuko prezioak gaur egungo errealitatera eta beharrianetara egokitu dituzte azken udalbatzarrean

ATXONDO • J.D.

Azken udalbatzarrean Atxondoko igerilekuko aurtengo tasak onartu zituzten. Igerilekuko mantenuaren kostuak handitzen joan diren bitartean, tasak bere horretan mantendu dira 2011tik hona. 2011n euro bateko igoera besterik ez zuten izan. Ondorioz, tasak gaur egungo errealitatera egokitu dituzte. Horrez gainera, erroldatu bakoien figura

desagertu egin da ordenantza-tik, erabiltzaile baten salaketa bategaitik Arartekotik horrela aginduta, eta baita gaur egungo legedira egokitzeko ere.

Tabernako lanak

Bestalde, udalak igerilekuko taberna berriztuko du. Lan horiek alait lasterren hasiko dituzte, udako denboraldirako prest egon daitezzen.

Martxan da Marixurrikeren jaiko kartel lehiaketa

Atxondoko aisialdi taldearen lehiaketa irabazten duenak maiatzaren 25eko jaiko egitaraua iragarriko du

ATXONDO • J.D.

Marixurrikeren aisialdi taldeak kartel lehiaketa bat ipini du martxan maiatzaren 25erako antolatuta duen jaia iragartzeko. Lanak entregatzeko azken eguna domeka da, maiatzaren 5a.

Gazteei begirako lehiaketa da eta 16 urte baino gutxiago izatea da parte hartu ahal izateko baldintza bat. Lanak eskuz zein digitalki sortu daitezke, eta egile bakoitzak

proposamen bakarra aurkeztu dezake. 'Marixurrikeren' da gaia. Modu bi daude proposamenak aurkezteko: Apatako liburutegian entregatuta edo marixurrikedok@gmail.com helbide elektronikora bidalita. Kasu bietan izen-abizenak eta adina ipini behar dira.

Marixurrikeren lau finalista aukeratu ditu eta herriak bozketa baten bitartez aukeratu du irabazlea.

Atxondon ipuin kontaketa saioa Amaia Egidazugaz

ATXONDO • J.D.

Oraintsu izan dira Haur Liburuaren Eguna eta Liburuaren Nazioarteko Eguna, eta Atxondon ere ospatuko dituzte biak, udal liburutegiak antolaturiko ekimenen bitartez. Gaur goizean zehar, eskolagaz batera, taile-

rrak egin dituzte, Mireia Delgadoz batera. Bestalde, datorren asteko egunean, Amaia Egidazuk *Batbirulau liburu* izeneko ipuin kontaketa saioa egingo du. Ekimena 17:30ean izango da, liburutegian. Egidazuk haur literaturari buruzko sari bat baino gehiago irabazi du bere ibilbidean zehar. Esaterako, 2021ean Zizur Nagusiko Udalak antolaturiko Etxepare saria irabazi zuen, *Dorotea* haurrentzako album ilustratuagaz.



Bertso saioa irudia.

Uztabarritzen ekimeneko bertso saioak 50 bat izurtzar batu zituen

IZURTZA • J.D.

Errepikatze modukoa. Horixe diote Uztabarritzen bertso zirkuituko antolatzaileek joan zen barikuan Izurtzan izan zen bertso saioari buruz. Zirkuituko laugarren aldiak lehenengoz bisitatu zuen Izurtza eta harrera ona jaso zuen. 50 bat izurtzar batu ziren Argintxu elkartearen Bittor Altube, Eneko Abasolo *Abarkas* eta Unai Iturriaga bertsolarien jarduna jarraituz. Amaieran luntx bat egin zuten bertaratu ziren denentzat, Argintxuren eta udalaren artean. Uztabarritzenek Atxondon izango du hurrengo geralekua, maiatzaren 11n.

MAÑARIA

KULTUR ASTEA 2024

MAIATZAK 10

18.00 Porrotx eta Mari Motots
"Amaren intxaurrak". Plazan
21.30 Kuttune. Plazan

MAIATZAK 12

Dultzaineroen omenaldia

10.00 Kalejira herrian zehar
11.30 Erraldoien kalejira
12.30 Plazan Baltseoa
13.00 Ekitaldi Nagusia
18.00 Barsanti antzerki taldea
"Akabo". Plazan

MAIATZAK 11

20.00 Moonshine wagon
kontzertua. Plazan

MAIATZAK 15

18.30 Wikiemakumeok.
Adinekoen gunean (Errose
Bustintza kultur etxean)

MAIATZAK 16

18.30 Asisko Urmenetaren
liburuaren aurkezpena
"Gora Euskal herrientsak".
Adinekoen gunean

MAIATZAK 17

20.00 "Euskaldungak"
bakarrizketak. Adinekoen gunean

MAIATZAK 18

17.00 "Aire" dokumentala.
Liburutegi zaharrear
20.00 Jon Basagurenen
kontzertua. Adinekoen gunean

MAIATZAK 19

10.00 Azoka. Plazan
18.00 Zirika zirkus "Azken
fakirra". Adinekoen gunean



'Elorrixon dendarik denda' kanpaina ipini dute martxan, tokiko merkataritza babesteko

20 euro ordainduta, elorriarrek 30 eurora arteko erosketak egin ahal izango dituzte kanpainara batu diren dendetan; Elorrioko Udalak 20.000 euro ipini ditu egitasmorako



Elorrioko hainbat dendari Julene Lazkano alkateagaz.

ELORRIO • M. Z.

Eguenean tokiko merkataritzako bonuen kanpaina berri bat ipini zuten martxan Elorriko: *Elorrixon dendarik denda*. Kanpaina maiatzaren 31ra arte izango da martxan. Denbora tarte horretan, elorriarrek, 20 euro ordainduta, 30 euroko erosketak egin ahal izango dute, erosketak bonuekin eginez gero. "Modu honetan, herritarrek %33

aurreztu ahal izango dute", azaldu du udalak. Elorrioko Udalak ohar batean jakinarazi duenez, 18 urteko gorako herritarrek bina bonu trukatzeko aukera izango dute. Erosketak komertzio bakarrean edo bitan egin beharko dituzte, baina betiere kanpainara atxikitutako negozioak badira; hain zuzen ere, aldi bitan baliatu ahal izango dute deskonturako aukera, edo

bonu biak denda bakarrean erabili. Guztira, Elorrioko 31 komertzio batu dira kanpainara, eta bakoitzak 64 bonu izango ditu herritarren eskura.

Bestalde, aurreko edizioetan legez, bonuak ez dira fisikoak izango. Elorrioko Udalaren esanetan, merkatariek eskura duten aplikazioa erabiliko dute bonuak kudeatzeko. Hori horrela, herritarrek euren

NANa erakutsi baino ez dute egin beharko bonuak erabiltzeko. Elorrioko Udalak 20.000 euro erabiliko ditu herriko merkataritza eta komertzio txikiak sustatzeko.

Auzo-taxia

Bestalde, Elorrioko Udalak Auzo-taxi zerbitzua eskatzeko epea zabaldu du. Zerbitzuak hainbat berrikuntza dakar aurtun. Berdintasun klausula berriak ipini dituzte, eta, horrez gainera, orain arte erabiltzen zen txartel fisikoak kendu egin dute. Erabiltzaile bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio eta zerrenda hori astero bidaliko zaie taxistei. Zaurgarritasun egoeran dauden erabiltzaileek 2,5 euro ordainduko dute egindako ibilbide bakoitzeko, eta gainerako kostua udalak bere gain hartuko du (9,5 euro gehiezin, argitu du udalak); gainerako erabiltzaileek 4 euro ordainduko dute. Elorrioko Udalak 10.000 euro erabiliko ditu zerbitzu honetarako.

2012an ipini zuten martxan Elorrioko Auzo-taxi zerbitzua, eta ordutik egokitzen joan da. Egoera zaurgarrian dauden herritarrei, hau da, adinekoei, desgaitasunen bat dutenei, aldi baterako mugikortasun murriztua dutenei eta errenta txikiagoak dituzten familiei mugikortasuna errazteko helburua du zerbitzuak. Eskaera orria HAZen bulegoan eskatu daiteke.

Maiatzaren 18an Intxorta elkartearen 35. urteurrena ospatuko dute

ELORRIO • A. M.

Elorrioko Intxorta Asti Elkar-terean 35. urteurrena merezi den moduan ospatzeko, ume, gazte eta helduentzako moduko egitaraua antolatu dute maiatzaren 18rako. Intxorta Elorriko erroturik dagoen elkarte da, eta batez ere umeei eta gaztetxoei zuzenduta badago ere, 35 urteko jardunean hainbat belaunalditako elorriarren bizitzaren parte bihurtu da. Hori dela eta, elorriar guztiei dei egiten diete ekimenetan parte hartzera. Goizetik eskulanak egingo dituzte plazan, eta bazkaria ere bertan izango da; txartelak Parra, Porta eta Bikale tabernetan erosi daitezke, 12 euroan. Arratsaldean mago ikuskizuna egongo da, eta, honegaz batera, Intxortako kideek prestatutako koreografiak. Poteo girotuan herria zeharkatu eta gero, jai giroa gaztetxera pasatuko da. Bertan ekitaldia egingo dute, 19:30ean; ekitaldiaren ondoren, Mirarik eta Borjak kontzertu akustikoa emango dute. Eguna eta jai borobiltzeko, Aiama taldeak erromeria kontzertua emango du, eta festak etxeko musika jartzaillekin jarraituko du gero.

Domekan Bizkargi Eguna ospatuko dute, egun osoko egitarauagaz

Beste urte batez, Bizkargi Gogoratuz elkarteak egun osoko egitaraua antolatu du Bizkargi Eguna dela eta; Santi Kurtz ermitaren bueltan egingo dute jai, maiatzaren 5ean

ZORNOTZA • A. M.

Bizkargi Gogoratuz elkarteak egitaraua kaleratu du Bizkargi Eguna dela eta. Gaur Santi Kurtz eguna ospatuko dute, eta domekan Bizkargi Eguna. Egitaraua 11:00etan hasiko da, Soinu txikie taldeagaz. 12:30ean ekitaldia egingo dute: Aranzadik eta Euskal Prospekzio taldeak lan azalpenak emango dituzte, Larrabetzuko Bizkargi dantza taldeak ere parte hartuko du, eta baita txalapartariak, albokariak eta adar-jotzaileak ere. Etxahun Lekuek, Onintza Enbeitak eta Xabier Arriaga Txiplas-ek bertsoan egingo dute. 13:00etan erromeria egongo da, Kittu taldearen eskutik.



Artxiboko irudi bat.

Zabalik dago herritarren jardueretarako diru laguntzen deialdia Berrizen

BERRIZ • A. M.

Berrizko Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko eta jarduerak egiteko diru laguntzen deialdia zabaldu du. Eskaerak maiatzaren 31ra arte aurkeztu daitezke toki administrazioaren egoitza elektronikoaren bitartez. Laguntzen helburua hiritargoko arlo bakoitzean herritarren parte hartzea sustatzea eta dinamizatzea da,

eta deialdiaren onuradunak pertsona fisikoak zein elkartearen erregistroan alta emanda dauden irabazi asmorik bako erakunde eta elkarteak izango dira. Guztira, Berrizko Udalak 25.000 euro bideratuko ditu egitasmo honetarako. Bestalde, adinekoei mugikorra erabiltzen erakusteko tailerra antolatu du Berrizko Udalak.



Berrizko Udala.

Durangaldeko berbalagunen XV. Kultur Lehiaketa

1. Durangoko Arte eta Historia museoa ez duzu artista honen lanik aurkituko:

- a) Agustin Ibarrola
- b) Mari Puri Herrero
- c) Hélène Feillet

2. Korrika 23ren omendua izan da:

- a) Pirritx, Porrotx eta Marimotots
- b) Azterketak euskaraz kolektiboa
- c) Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegí"

3. Zenbat aldiz pasa da aurten korrika Abadiñotik?

- a) Behin
- b) Bitan
- c) Hirutan

4. Zein musika taldek argitaratu berri du *Giza Zaratak* diskoa?

- a) Verde Pratok
- b) Belakok
- c) Anari Alberdik

5. Amaitu atsotitz hau: *Etxeko sua,*

- a) *etxeko hautsaz estal*
- b) *tximiniaren ulua*
- c) *egun guztian zaindua*

6. Amaitu atsotitz hau: *Urde goseak,*

- a) *ezkur amets*
- b) *hozkarik ez*
- c) *hiltzean ere, kurrixka*

7. Amaitu atsotitz hau: *Deabraua zahartu,*

- a) *herriak dantzan ospatu*
- b) *eta jakintza pilatu*
- c) *ez ordea ondu*

8. Moriarti ekoiztetxearen (loreak, Handia...) telesail berria:

- a) *Cristóbal Balenciaga*
- b) *Alardea*
- c) *Hondar Ahoak*

9. Eneko Sagardoy durangarra zer izan da *Betiko Gaua* film laburrean?

- a) Aktore nagusia
- b) Zuzendaria
- c) Ekoizlea

10. Ibon RGren *laquin Vahu* diskoa liburu honetan oinarrituta dago:

- a) Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*
- b) Jon Miranderen *Haur Besoetakoa*
- c) Txomin Agirreren *Kresala*

11. Emakume ilustratzaile eta komikigileen kolektiboa da eta hiru antologia liburu ditu kalean:

- a) Tupust!
- b) Aizu!
- c) Zapla

12. Wikipediako editore-taldearen lana erakusten duen dokumentala

- a) WikiemakumeOK Donk
- b) Wikiemakumeak gara
- c) Wikipediako emakumeok

13. Noiz sortu zen Karrika antzerki taldea?


- a) Duela 18 urte
- b) Duela 26 urte
- c) Duela 10 urte

14. Zein da Durangaldeko erlezainen elkartearen izena?

- a) Abaraska
- b) Erlezain
- c) Erlete

15. Aurtengo Berbalagunen sukaldaritza ikastaroan zer prestatzen ikasi dugu?

- a) Orburuak
- b) Gazta-tarta
- c) Sushia



IZEN-ABIZENAK:

HERRIA:

TELEFONOA:

Erantzun zuzenak markatu eta entregatu Durangaldeko edozein euskaltegitan, maiatzaren 20a baino lehen.



SARIA: 6 kultur saski

Euskaraz
praktikatu nahi?
Berbalagunak zain dituzu!



EMAN IZENA

Berba lagun 639 400 786
praktikatu.eus/blog/durangaldea
durangaldea@aek.eus



praktikatu
aek



anboto
kide

Anbotokideen txokoa


MAIATZEKO ZOZKETAK



Arima Basque Brand arropa dendan gastatzeko 65 €-ko bonoa.



Etxera eramateko eguneko menu bat **Basaren** eskutik.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

IRABAZLEAK

Herri Urratseko lotea: Idoia Elorriaga eta Maite Gorritxategi
Gosaria Xiberun: Aitziber Iturriagaetxebarria eta Unai Sanchez
Errigorako otzara: Joseba Berriotxo

Okm:
batzen gaituen distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



XII. mendean Astxikin zegoen gazteluaren errekreazioa egin dute

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astelehenean Astxikiko gazteluaren 3D-ko errekreazioa aurkeztu zuten Txanporta Kultur Etxean. Iñaki Sagredo historialariak lantalde baten laguntzagaz sorturiko lana da. Urteetako lanaren ondoren, XII. mendean Astxikin zegoen gaztelua zelakoa zen erakutsi dute. Ikerketa lan honi orain 12 bat

urte eman zioten hasiera eta bertan herriko hainbat kidek parte hartu dute; tartean, Mila Salterainek eta Arrate Mardarasek. "Gaur egun oso ebidentzia gutxi dago, eta, beraz, gatxa izan da errekreazioa egitea. Aurkezten gabiltzana oso lan konpletoa da, baina oraindino badago lana egiteko", adierazi zuten Sagredok aurkezpenean.

Historialariak mezu argi bat helarazi zuen: "Arreta erakarri gura dugu, ondarea galdu ez dadin! Gaur egun inguru horrek pena ematen du, harriak jausten daude. Beraz, beste behin, Bizkaiko Foru Aldundiari ikertzen uzteko eskatzen diogu. Behintzat Astxikin dagoen ondare apurra galdu ez dadin", gaineratu du. Bestalde, ikerketa ez dela Astxikin amaitzen esan du Sagredok. "Alluitzen ere beste gotorleku bat zegoela ikusi dugu eta hori ere ikertu gura dugu", adierazi du.

Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak ere azpimarratu gura izan zuen ikerketa honen garrantzia: "Urte luzez hainbat jendek lan egin du ikerketa honetan eta hori azpimarratzekoa da. Era honetako ikerketak oso garrantzitsuak dira Abadiñorentzat. Gainera, beste ikerketa lerro bat ere zabaldu zaigu, Alluitzekoa".

Maiatzaren 23an, 18:30ean, herritarren aurrean aurkeztuko dute, Txanporta kultur etxean. Ekainaren 8rako irteera antolatu dute Astxikira.



Iñaki Sagredo historialariak eta bere lantaldeak 3D-ko errekreazioa egin dute.



Lehenengo fasea amaituta, Zubitegi Kirol Parkea herritarrek hartzeko prest dago lehengo astetik Mallabian

Lehenengo fasearen kostua 1.489.911 eurokoa izan da eta Aldundiak 375.957 euroko laguntza eman du

MALLABIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2022ko abenduan Mallabiko Udalean egindako osoko bilkuran Zubitegi Kirol Parkea izeneko proiektua esleitzea erabaki zuten, mallabitarren gizarte, kultura eta kirol garapenerako aire zabaleko kirol eta aisialdirako parkea. Eta dagoe-

neko amaitu dute kirol parkeko lehenengo fasea. Hori horrela, Mallabiko Udaletik jakinarazi dute kirolerako eta aire zabaleko entretenimendurako gunerak berri bat dutela herrian orain.

Kirol parke berria Zubitegi errekeraren ezkerrean dago.

Udalak 17.374 metro koadroko lursail bat erosi zuen eta bertan egin du gunerak berri. "Zubitegi kiroldegi parkearen tipologia berri bat aztertzen du, eraikin itxien gehiegizko kontsumoa eta mantentze-lanak saihesten dituen, aire zabaleko jarduerak sustatzen duena eta egitura eza-gun, koloretsu eta jostagarria sortzen duena", adierazi dute udaletik. "Parke honen helburua gure gazteak eta familiak herrian geratzea ekarri dezakeen instalazioa egitea da", gaineratu du Igor Agirre alkateak.

Lehenengo fasea amaituta, bigarren fasean kirol gunerak berriak egingo dituzte: skate pista eta harmailetarako gunerak, besteak beste.



Txinurrisolo eta Trañabarren kaleak berrurbanizatzeko lanak, amaituta

302.686 euro ipini dituzte irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko lanetarako



Txinurrisolo kaleko argazkia.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Dagoeneko amaitu dute Traña-Matienako erdigunean trafikorik bako inguruneak sortzen jarraitzea helburu duen Txinurrisolo-Trañabarren kalearen berrurbanizazioa. "Obra garrantzitsua zen eta aurreikusitako egunetan amaitu da, jaietan eremu osoan segurtasunez ibiltzeko. Bizilagunek hobekuntza nabarmena nabaritu dute", adierazi du Jose Luis Navarro zinegotziak. Orain kalea oinezkoentzat izango da eta baimenduriko ibilgailuak 15 minuturako baino ezinongo dira sartu. "Obra garrantzitsua da, herritarrek luzaroan itxaron dutena, eta nabarmen hobetuko du euren bizi kalitatea. Pauso garrantzitsua da Traña-Matiena berrizatzeko prozesuan", azpimarratu du Mikel Urrutia alkateak.

Inor ere ez da aurkeztu Mañariko Errekondo jatetxeko kudeaketarako

MAÑARIA • J.D.

Errekondo jatetxearen kudeaketa lizitatzeko saiakera berriak ez du fruiturik eman. Udalak lehiaketara atera zuen otsail amaieran, baina ez zen proposamenik aurkeztu epealdia zabalik egon zen egunetan. Egoera honen aurrean, udal arduradunek Errekondogaz zer egin daitekeen aztertuko dute beste urrats bat eman aurretik.

2018tik hona udalak hainbat saiakera egin du Errekondo esleitzeko. 2020ko urrira arte arduradun batzuk izan zituen, baina osasun krisiaren ondorioz itxi egin zuten. Gero, 2021eko urrian beste arduradun batzuek hartu zuten, baina urte biren ondoren, 2023ko abenduan, kontratua etetea erabaki zuten.

Helduentzako ariketa fisikoa egiteko saioak Otxandion

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI

Ariketa fisikoa taldean egiteko aukera dago Otxandion. Martxoan, 58 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko saio gidatuak egiten hasi ziren taldean, astelehenero, eta dagoeneko 13 laguneko taldea osatu dute. Mairondoko gimnasioan elkartzen dira, 09:00etatik 12:00etara. "Herritarrak aktibatzen eta jarduera edo ariketa fisikoan jarraibideak ematen ahalegintzen gara, erabiltzaile bakoitzaren beharrianak asetu eta bizi kalitatea hobetzeko helburuagaz", azaldu dute ekimenaren sustatzaileek. Zabalik dago taldera batzeko aukera. 664 28 6 118 telefono zenbakira deitu daiteke, edo jon.oteo@mugikon.com helbidera idatzi.

Garaiko eta Lantziegoko herritarrek udalerrri bien arteko hartu-emana sendotuko dute zapatuan

Garaiko udal agintariek eta herritarrek harrera egingo diete lantziegarrei, 11:00etan, Momoitioko San Juanen



laz garaitarrek bisitatu zuten Lantziego.

GARAI • EKAITZ HERRERA

2013an eginiko senidetzeari eutsita, Garaiko eta Lantziegoko herritarrek euren arteko hartu-emana berretsiko dute zapatu honetan. Laz garaitarrak joan ziren Arabako Errioxako udalerrira, eta, beraz, aurten lantziegarrek etorriko dira Garaira bisitan. Udal agintariek eta herritarrek Momoitioko San Juan ermitan egingo diete harrera lantziegarrei, hamaitakoa eskainita. Gero, ermitaren eremua eta bertako nekropoliari buruzko azalpenak emango dizkiete, eta bisita gidatu bat ere

izango dute herriko leku esanguratsuez gozatzeko. 14:45ean herri bazkaria egingo dute plazan. Eguraldiak laguntzen ez badu, frontoian egingo dute. Giroa alaitzeko, trikitilariak ere izango dira. Antolatu dituzten ekitaldiekin jarraituta, San Migel elizaren ondoan dauden mugarrira, artea eta mahastia bisitatu dituzte. Udalerrri bien arteko senidetzea irudikatzen duten elementuak dira guztiak. Azkenik, talde argazkia aterako dute. Garaiko Udalak senidetze ekitaldian parte hartzera deitu ditu herritarrak.

CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

Aurrematrikula
maiatzaren 6tik 24ra

Matrikula
uztailaren 11tik aurrera

Ate irekiak
maiazaren 8an

ESKAINITZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK
Metal Eraikuntzak
Web Aplikazioen Garapena
Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena
Mekatronika Industrial
Garraioa eta Logistika

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK
Merkataritza Jarduerak
Erizaintzako Zaintza Osagarriak
Mantentze-lan Elektromekanikoa
Soldadura eta Galdaragintza
Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
Langabeei eta landunei zuzendutako ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com

Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

EUSKO INDIARITZA GOBIERNO VASCO

Gozatu gozotegiak bigarrenez irabazi du Euskadiko pastarik onenaren saria

Maiatzaren 4ko Amaren Egunaren harira atera dute merkatura pasta saritua

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Gozatu gozotegiak bigarrenez irabazi du Euskadiko pastarik onenaren saria. 2020an 'Lur Garana' pastagaz lorturikoa errepikatu egin du aurten, 'Mani&CO' izenekoagaz Valentziako Dulcypas sariketan. Hori gutxi balitz, seigarren geratu da Espainiako hamar pastarik onenen zerrendan.

Oinarri bat eta haren gainean kakahuete formako pasta. Forma horixe du sorkuntza berriak. Oinarria gailetak, toffe ukitu batek, sudachi geruza krematsuak eta



Gozatuko kideak.

txokolate kizkurak osatzen dute. Dena txokolate zuriko geruza batez bildua. Eta haren gainean, harribitxi bat balitz lez, kakahuete itxurako pasta, gianduja kremaz egindakoa, kakahuetea eta koko kizkurtua nahastuz. "Jendeak erraz ulertzeko, turroi bigunaren testura du", azaldu du Gozatu gozotegiko Karmele Elexpek.

Gozatuko Dani Sousaren, Anne Cornejoren eta Karmele Elexperen imajinaziotik eta jakintzatik jaio da produktu berria. Euren batera, Gozatu lan-talde osoaren ekarpena ere nabarmendu du Elexpek.

Maiatzaren 4a Amaren Eguna da eta, egun horri begira, dagoeneko salgai dago pasta irabazlea Ermodo kaleko gozotegian.

Politikan

Markel Larruskain
Narbaiza
EH-Bildu



Burokrazia tonak

Burokrazia irentsiko gaitu. Paper, fitxa, prozedura, arau, inprimaki, epe, lege eta baimenek bizitza hilko dute.

Zerbitzu publikoak arautzearen helburuak, baliabideen demokratizazioa eta banaketa justua dira, edo izan beharko lirake behizat, baina nago kontrakoa gertatzen ari dela.

Medikuarekin zita bat hartzeko, kotxea aparkatzeko, multa bat ordaintzeko, bazkari herrikoi baterako aukiak eskatzeko edo ekimen kultural baterako baimena lortzeko behar dira: osakidetzako txarteleko zenbakia, BakQ ziurtagiri digitala, baimen eskaera egin duen elkarte presidentearen NANaren fotokopia, aurretiazko zita eskatuta lortzen den P012 inprimakia eta, nola ez, arkitekto batek sinatutako txosten teknikoa.

Administrazio publikoaren segurtasun juridikoa eta pertsonon segurtasuna garrantzitsuak dira, horregatik sortu ditugu prozedura estandarizatuak, autobabes planak, datuen babeserako legeak eta beste mila instrumentu. Baina helburuetan baino tresnetan arreta gehiago jartzen bada, tresnak helburu bihurtzeko arriskua dago, hasierako helburua zein zen ahazteraino.

Nire inguruan behintzat gero eta gehiago normalizatzen ari da elkarte eta baita norbanakoen artean ere, tramite hauek guztiak egin ahal izateko aholkularitza enpresak kontratatzea eta joera honek badakigu zein desberdintasun eta arrakala sortzen dituen, badakigu nork ordaindu dezakeen horrelako zerbitzu bat edo nork duen abokatua den lagun bat mesedea egingo diona eta nork ez. Altxatu dezagun beraz burua paperetatik eta jar dezagun begirada helburuetan, 15 urteko gazteentzat herriko frontoian erraketarekin jokatzeko baimena lortzea porroak erostea baino konplikatua denean, zerbaitetan ez garelako asmatzen ari.

Durungaldea asteen

Iurretako Udalak jolas berri bat ipini du Maiztegin 12 urtera arteko umeentzat

IURRETA | Iurretako Udalak Santoña Itsasontzia haur jolas berria ipini du Maiztegi herri ikastetxean, eskolako jolasgune berriztuko zati batean. Jolasa 1etik 12 urtera bitarteko umei zuzenduta dago eta 4.532 euro balio izan du. Santoña Itsasontziak orekarako surf taula, hari-eskala, iparrorraz jokia eta lema ditu.

Ignacia Arregui Idigoras zaldibartarrak 100 urte egin zituen apirilaren 27an

ZALDIBAR | Ignacia Arregui Idigoras zaldibartarrak 100 urte egin zituen eta Eneritz Azpitarte alkateak eta Carmen Sampedro alkateordeak lore sorta bat eskaini zioten herritar guztien izenean. Apirilaren 27an egin zuen mendea Arreguik. Zaldibartarrak etxean ospatu zuen urteguna, "hunkituta eta familiako kide ugariaren babesean".



Mendiolako eskolaren mendeurrena bazkari herrikoi batez ospatuko dute

ABADIÑO | 100 urte pasatu dira Abadiñoko Mendiola auzoan eskola martxan hasi zenetik. Hori dela eta, Errekatxo Auzo Elkarteak egun osoko egitaraua antolatu du maiatzaren 25erako. Tartean, dokumentalaren aurkezpena eta bazkari herrikoaia.

Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte mendeurren jaian parte hartzera, eta gogoratu dute gaur dela, maiatzak 3, bazkari txartelak erosteko azken eguna. Bizum aplikazioaren bitartez ordaindu behar da, 645 702 530 telefonora bidalita. Kontzeptuan honako hau ipini beharko da: izen-abizenak eta txartel kopurua.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

**ESKELAK/ URTEURRENAK/
OROIGARRIAK/ ESKER ONAK
ANBOTON**

75€

• Ehorztetxearen bitartez

• Anbotoren bitartez:

946 816 558 • anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.







MARGOTU

Margotu beheko irudia gurago duzun moduan.




SUDOKUA

Osatu segida eskumako irudiak erabilita.













LABIRINTOA

Lagundu erleari
erlauntzara iristeko
bide egokia topatzen.



MATEMATIKA

Egin biderketak fruitu bakoitzak duen balioa kontuan hartuta.

	\times		$=$?
	\times		$=$?
	\times		$=$?
	\times		$=$?
	\times		$=$?



2



3



6



8












9

DIFERENTZIAK

Beheko irudietan 7 diferentzia daude. Bazara gai denak topatzeko?



ORIGAMI



Egin irudian agertzen den moduko usoa papera tolestuz.

TOPATU ITZAZU

Beheko irudian topatu itzazu ondoko objektu hauek.
Zenbat daude bakoitzetik?





Okm:

batzen gaituen distantzia

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan



> anboto
kide

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimo litroko deskontua.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

Berria!

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, ur eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline). Opari bat emango da.

Berria!


ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua

***Sartu zure komertzioa
Anbotokideen deskontu sarean.
Atera etekina abantailei!***



***Egin zaitez ANBOTOKIDE
eta baliatu abantailez!***



GAZTE EGUNA

SANPRUDENTZIOAK ABADIÑO :: Maiatzak 4

Gazte Eguna ospatuko dute sanprudentzioen azken txanpan

Domekan Donien Atxa bota aurretik, askotariko ekitaldietan parte hartzeko aukera egongo da Traña-Matienan. Tartean, Gazte Egunean. Zortzigarren edizioa da aurtengoa, eta Gazte Asanbladako kideek emakumearen presentzia indartzen egin dute ahalegina. Txupinazoa eta pregoia bota ondoren,

gazteak bazkaltzeko batuko dira, 14:30ean, Traña-plazan. Eta bazkalostean Gazte Eguneko jolasak hasiko dituzte. Auzoko kale eta bazterrak girotuko dituen Skapaie taldeagaz kalejira egingo dute, 18:30ean. Eta gauean Sua taldeak emango du kontzertua. Dj Kukuk, Dj Anybs-ek eta Dj Kenek ipiniko dute musika ondoren.

Maiatzaren 3an

ABADIÑO sanprudentzioak
Txiki merienda, 16:45ean, Traña-Matienako merkatu plazan.
Disko-dantza, 17:15ean.
Esku pilota partiduak, 18:00etan, frontoian.
Parrillada eta DJ Gartz, 19:30ean, Traña plazan.
Bingo solidarioa, 22:00etan.
DJ Gartz, 23:00etan, Traña plazan.
Bertsoak: Maialen Lujanbio, Miren Amuriza, Oihana Bartra eta Eneko Abasolo Abarkas, 22:00etan, Errota kultur etxean. Gai jartzailea: Igor Galarza.

DURANGO bisita gidatua
'Euskara ibiltaria', 18:00etan, Plateruenean (gaztelaniaz).

ELORRIO azoka
2. Eskuko Azoka Solidarioa, 08:30etik 14:00etara, plazako aparkalekuan. Baturiko dirua eta materiala Kainabera, Caritas eta Río de Oro elkarteentzat.

IURRETA antzerkia
'Baserrian' (Patxin eta Potxin), 17:00etan, Ibarretxen.

IURRETA santikurutzak
Maiztegiko umeen dantza saioa, 17:30ean, Goiurian.
Herri Maite taldea, 19:00etan.
Bizkaiko taldekako bertso saioa: Urruxarrak eta Zapatilapeko txikiek, 20:00etan.

ZALDIBAR lasterbidean
Txirringa poteoa, 18:30ean.
Elkarretaratzea, 20:00etan.
Talo jana.

Maiatzaren 4an

ABADIÑO sanprudentzioak
Kickboxing opena, 10:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.
Paella txapelketa, 11:30ean, merkatu plazan.
Iluntze dantza taldea, 12:30ean, Traña plazan (euria bada, frontoian).
Txupinazoa eta Gazte Eguneko bazkaria, 14:30ean, Traña plazan.

Gazte Eguneko jolasak (euria bada, eskolako aterpean).
Ugasio txapelketa, 16:00etan, merkatu plazan.

San San Prudentzio-San Trokaz esku pilota txapelketako finalerdia, 17:30ean, frontoian.

Tortilla txapelketa, 17:30ean, merkatu plazan.

Kalejira Skapaie taldeagaz, 18:30ean.

Sua+Dj Kuku+Dj Anybs+ Dj Kene, 22:00etan, Traña plazan.
Jaguar, 23:00etan, Trañabarren etorbidean.

BERRIZ lehiaketa
XXV. Kaleko Pintura Lehiaketa. Euskarriak Kultur Etxean zigitatuko dira, 08:30etik 09:30era.

DURANGO antzerkia
'Mi madre también quiso ser pez' (La Brecha Teatro), 19:00etan, San Agustín kulturgunean.

IURRETA irteera
Bizikleta irteera Etxebarriara, 08:00etan. Iurreta Txirindulari Elkarte.

ZORNOTZA kontzertua
'Bitartean... Rocke ztanda' (ZMB + Ezlandap), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 5ean

ABADIÑO sanprudentzioak
Txanbolin taldeko txistularien kalejira, 10:00etan, Traña-Matienan.
Jaizale txistulari elkartearen kontzertua, 12:45ean, elizan.
Perretxiko-pintxo dastatzea, 13:30ean, Pino plazan.
Nagusien bazkaria frontoian, 14:00etan. Ondoren, Serenade taldea.
Donien Atxa botatzea, 20:00etan.

BERRIZ dantza
XXIV. Umeen Euskal Jaia. Dantzarien kalejira, 11:30ean.
Alardea, 17:00etan, Olakuetan.

IURRETA irteera
Bizikleta irteera Laukizera, 08:00etan. Iurreta Txirindulari Elkarte.

Maiatzaren 5era bitartean

DURANGO erakusketa
'Gerra zantzuak Durangaldean', Arte eta Historia Musean.

DURANGO erakusketa
'Durangaldeko emakumeen erretratuak' (M. Azurmendi), Arte eta Historia Musean.

Maiatzak 7

DURANGO izen ematea
Liebanan (Kantabria) arroila eta via ferrata egiteko irteerarako izena ematea, 19:00etatik 19:30era, Alpino Tabira mendizale elkarte lokalean. Maiatzaren 18-19an, 12tik 17 urtera bitarteko gazteentzat.

Maiatzaren 8an

ELORRIO berbaldia
'Familien rola eskola eta ziber jazarpenean' (Hizlaria: Ianire Jayo psikoterapeuta), 18:00etan, Ametsolan.

Maiatzaren 9an

ABADIÑO kontzertua
Seiurte, 19:30ean, Amaraun Arte Fabrian.

ATXONDO ipuinak
'Batbirulau liburu' (Amaia Egidazu), 17:30ean, liburutegian.

Zinema

:: **Berriz**
KULTUR ETXEA

• **Dragoi-jagolea**
barikua 3: 17:00
domeka 5: 17:00

:: **Durango**
ZUGAZA ZINEMA

• **Inmaculada**
barikua 3: 18:30 / 21:00
zapata 4: 19:30 / 21:30
domeka 5: 19:30
astelehena 6: 18:00 / 20:15
martitena 7: 18:00 / 20:15
eguztana 8: 19:00

• **Ooh, La la**
barikua 3: 18:30 / 21:00
zapata 4: 17:30 / 19:30 / 21:30
domeka 5: 17:30 / 19:30
astelehena 6: 18:00 / 20:15
martitena 7: 18:00 / 20:15
eguztana 8: 19:00

• **Garfield: la película**
barikua 3: 18:30 / 21:00
zapata 4: 17:00 / 19:30 / 21:30
domeka 5: 17:00 / 19:30
astelehena 6: 18:00 / 20:15
martitena 7: 18:00 / 20:15

• **Dragoi-jagolea**
zapata 4: 17:30
domeka 5: 17:30

• **Lakme**
eguztana 8: 19:00

:: **Elorrio**
ARRIOLA ANTZOKIA

• **La Quimera**
zapata 4: 20:00
domeka 5: 20:00
astelehena 6: 20:00

:: **Zornotza**
ZORNOTZA ARETOA

• **Menudas piezas**
barikua 3: 20:00
domeka 5: 20:00
astelehena 6: 20:15

• **Enma y el jaguar negro**
domeka 5: 17:00

• **Sangre en los labios**
martitena 7: 20:15

Oraindik ez zara ANBOTOk whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali 'ALTA'

688 635 041

telefono zenbakira

* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto

“Antzerkiak ilusio handia egiten dit, taula gainera igotzeak ere bai, eta niretzat erronka itzela izango da”

'Mi madre también quiso ser pez' antzezlanak estreinaldi bikoitza izango du; zapatuan, hilak 4, Durangoko San Agustin kulturgunean taularatuko dute



Paula Prol eta Maialen Marin.

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Paula Prol ermuarra eta Maialen Marin durangarra antzezleak dira, 'Mi madre también quiso ser pez' antzezlaneko protagonistak. Amatasunak lagun biren arteko elkarrizketa zeharkatzen du; lehenengoaren kasuan, ama izan eta gero zalantzak ditu bere nahia hori ote den; bigarrenak, oster, ama izan gura du, baina ez izatea erabaki du, mundua pikutara doalako bere ustetan. Prol antzezlaneko zuzendaria ere bada, Albar Cirarda laguntzaileagaz batera; La Brecha antzerki konpainiako kideak dira biak. Asteburuan emanaldi bikoitza dute, gaur Ermuan (Gipuzkoa) eta bihar Durangon, etxean.

Gogotsu asteburuko emanaldi bikoitzerako?

Urduri gaude, baina oso pozik; niri ilusio handia egiten dit San Agustineko oholtzara igotzeak, lehenengo aldia izango baita bertan. Oso gutxitan igo naiz oholtzara batera. Arte dramatikoa ikasi

nuen, Dantzertin (Goi mailako Arte Dramatiko eta Dantza eskola), eta profesionalki iaz hasi nintzen honetan. Lehenengo Ermuan egiteak lasaitasun apur bat ematen dit, ariketa ona izango da izotzaldia urtzeko, eta oso urduri ez egotea espero dut. Lagun asko

Askorentzat lehenengo aldia izango da ni antzeztan ikusiko nautena; babes horrek indar gehiago ematen dit, eta, beraz, urduri banago ere, ilusio handia dut

joango da emanaldi bietara, baita kanpokoak ere, eta askorentzat lehenengo aldia izango da ni antzeztan ikusiko nautena. Babes horrek indar gehiago ematen dit, eta, beraz, urduri banago ere,

ilusio handia dut. Gainera, uste dut aukera bat izan daitekeela antzerki zalea ez den jendeari grina hori pizteko.

Antzezlan honetan zure paperak pisu handiagoa du.

Lo que no se ve antzezlanak korralgoa zen, eta lan karga banatua zegoen, sei aktoreen artean. Oraingoan lagun bi gara oholtzara gainera, lagun biren arteko elkarrizketa bat da eta erregistroa ere halakoa da. Paulari komedia postdramatikoa dela esatea gustatzen zaio, baina ez da antzerki klasiko; irudi poetikoak eta metaforak ere erabiltzen ditugu, baina kalekoa da erabiltzen dugun hizkera. Horrez gainera, laugarren paretan apurtzen dugula nabarmenduko nuke, publikoagaz interakzioa bilatzen dugulako. Bestalde, fikzioa da, baina gure bizipenetan oinarrituta dago. Paulak amatasunagaz zuen kezka izan da proiektuaren abiapuntua; hasieran, gradu amaierako lan modura aurkeztu

zuen, ordu erdiko pieza bat, bakkarrizketa formatuan, baina gero handitu egin da proiektua. Pieza laburrean protagonista izateko aukera eskaini zidaten eta oso eskertuta nago. Eskerrak gero biok igoko garela taula gainera, bestela gehiegi izango litzateke niretzat (barrez).

Paulak testua eman zidanean, harritu egin nintzen, entseatzen hasi ginenean asko aldatu zelako testua lehenengo irakurralditik. Nahiko orekatuta daude bion testuak, baina pozik nago, erronka bat delako niretzat. Gainera, Paulak eta Albarrek konfiantza handia izan dute nigan, hasieratik. Lehenengo egunetik transmititu didate hori, bazekitela ondo egingo nuela, eta horregaitik gura zutela nik egitea. Hori opari bat da niretzat.

Itzultzailea zara lanbidez. Nondik da tortzu antzerkirako zaletasuna?

Niri beti gustatu izan zait gehiago zinema antzerkia baino. Ohituragaitik izan daitekeela uste dut;

ohituago gaude pantaila eta are gehiago plataformekin. Baina ikus-entzunezkoaren magia hori betidanik gustatu izan zait. Ikasteen ere erosoago sentitzen nintzen kameraren aurrean lan egiten, intimitate gehiago nuelako; baina gatxa ere bada, jakina. Biek dituzte euren abantaila eta desabantailak. Antzerkiak errespetu handia ematen dit, taula gainera igotzeak ere bai, eta niretzat erronka handia izango da, itzela. Azken hileak urduri samar igaro ditut, baina Paulak eta Albarrek nigan konfiantza hori izatea gakoak izan da. Mimo handiz egindako testua da, eta prozesu osoan asko lagundu didate. Oso lankide onak dira, asko zaintzen dutelako dena. Lanean, adibidez, gurago dut testua ondo

Fikzioa da, baina gure bizipenetan oinarrituta dago. Paulak amatasunagaz zuen kezka izan da proiektuaren abiapuntua

ikasi, inprobisatzen ibili barik, baina ondo moldatu dira nigan. Prozesu guztiak gozamen hutsa izan dira. Oso inguru segurua sortu dute lotsa baztertu eta gauzak probatzeko, eta hori ere oso garrantzitsua da.

Arteak, orokorrean, txikitatik deitu nau: musikak, abestek... Etxean ere zaleak izan dira beti; zinematik irteetan, etxerako bidean, nire iruditeria martxan hasten zen nire buruan (barrez). Antzerkian helduagotan lotu naiz. Behin itzulpengintza amaiturikoan, duda izan nuen, antzerkia ikasi ala ikus-entzunezko gradua egin. Antzerkia egitea aukeratu nuen, oinarritzat zela iruditu zitzaidan eta. Orokorrean, artean lan egitea gatxa dela uste dut, eta oinarri hori ondo ikastea hobe zela iruditu zitzaidan. Lengoia desberdinak dira, baina badituzte antzeko gauzak ere. Eta esango nuke umorerako ere beti izan dudala sena.

Aurrera begira, zer egitea gustatuko litzaizuke?

Emanaldi gehiago egin ahal izatea antzezlan honegatzat. Ikus-entzunezko lanen batean aritzeko aukeraren bat izatea ere gura nuke, baita antzerkian ere. Beste aukera bat bikoizketan edo irratan ere izan liteke.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Zornotzako eta Eako (Bizkaia) ki-deek osatzen duten Eztandap taldeak 'Eta ni begira' diskoa kaleratu du oraintsu. Rock doinuetan sakontzen jarraitzen dute. Martin L. Guevaragaz grabatu dute, Bilboko Silver Recordings estudioetan.

Zelako harrera izan du *Eta ni begira* diskoak?

Oraingo oso feedback positiboa jasotzen ari gara inguruko jendearengandik. Normalean gehien kritikatzeko gaituzten lagun eta familiarrek ere esan digute gustuko dutela egin dugun lana, eta, beraz, pozik gaude.

Lehenengo lanetik bigarrenera, zein da aldaketarik nabarmenena?

Lehenengoagaz alderatuta, disko hau errazago entzuten dela uste genuen hasieratik. Azken urteetan eboluzionatzen joan gara, bai bakarka bai talde modura, eta hobeto ezagutzen dugu elkar. Horri esker, abestiak lantzerako orduan identitate propioa fintzen joan gara eta muinera joaten ahalegindu gara, guretzat behar-beharrezkoa zena soilik erabilita.

Martin L. Guevaragaz grabatu duzue. Zelako esperientzia izan da?

Egundoko esperientzia izan da, egia esan. Bere estudioan egindako beste lan batzuk ezagutzen genituen eta beragaz grabatu duten ezagunek oso erreferentzia onak eman zizkiguten, baina espero baino hobeto joan da dena. Oso esperientzia gutxi geneukan zuzenean grabatzen, eta oso eroso sentitu gara prozesu osoan zehar. Lau egun genituen lana amaitzeko, eta tar-

"Azken urteetan eboluzionatzen joan gara, bai bakarka bai talde modura"

Eztandap taldeak disko berria aurkeztuko du maiatzaren 10ean, Bilbon, Blanco y en botella eta Krüddo taldeekin batera



tean bideoklip bat grabatzeko astia ere izan dugu. Martin forever.

Hainbat kolaborazio izan duzue diskoan.

Bai! Oso eskertuta gaude haien ekarpenagaitik. Ekhi (Nevadah) eta Baini (Feline) Eako (Bizkaia) lagunak dira, eta Aneren (Sua) kasuan,

anekdota bitxi bat dugu. Eztandap sortu aurretik, orain dela hamar bat urte, Asier biok eta Ane musika egiteko geratzen hasi ginen, magisteritzako gradua amaitzen genbiltzan sasoian. Lehenengo abestiko letra Anek idatzi zuen, eta berreskuratu egin gura izan dugu

disko honetarako. Berari abesteko proposatzeak zentzu guztia zuela iruditu zitzaigun eta emaitza ezin hobea izan da, gainera.

Maiatzaren 10ean zuzenean aurkeztuko duzue. Gogotsu zaudete?

Krúddo eta Blanco y en Botella taldeetako lagunak ondoan gura

genituen kontzertu berezi honetan. Alde batetik, Bilbon egitea erabaki genuen, uste genuelako errazagoa izango zela jende gehiago elkartzeko, eta, bestetik, jai on bat antolatu eta herriko hiru taldek hiriburuan zer egiten duten erakutsi gura genuelako.

Gai librean

Ihes

Bakarrik bizi da zaharra. Kontuak kontatu, aginduak eman eta beharrezkoa denetan errieta egiten dio pisukide duen katuari. Behatxulotik so egon ohi da beste aldean zaratak entzuten dituen aldiro. Beldurra dio kaleari, jendeari. Lau horma horietatik kanpoko datorren mugimendu, ahots eta gertaerei. Ez daki zenbat denbora daraman etxetik atera gabe. Erosketak eta garbiketa lanak egiten dizkion neska gazte kanpotarra da desiratzen eta gorrotatzen, sentitzen, entzuten eta ikusten duen pertsona bakarra.

Bere gorputza gorroto du Maddik. Iazko udalekuan munstroa zirudiela esan zioten egonaldiko bi mutil popularrenek. Udaberriko epeltasunaren sintonian, badaki lagunekin herriko igerilekuetara joateko sasoia iristear



Ainhoa Zabarte Narbaiza Behargina

'Munstroa dirudizu' esaldia du iltzatuta. Ez du arroparik kendu nahi jende aurrean

Lanaz gain, lankideak ere gorroto ditu. Dena da 'friendly', 'coworking' eta 'after work drinks'

dela. 'Munstroa dirudizu' esaldia du iltzatuta. Ez du arroparik kendu nahi jendearen aurrean. Oparitu berri dioten mugikorrari begira pasatzen du denbora. Sareetan ageri diren nesken irudiei begira. Bere tripari begira. Neskei begira. Bere gorputzari begira. Neskei begira. Bere gorputzari itsusi, lodi, zatar eta gorrotagarriari begira. Esaldi hura entzun arte, inoiz ez du bere gorputza zatarra eta lodia den irudipenik izan.

Pi pi pi piii. Jo du iratzargailuak beste egun batez. Begi bat zabaldu orduko hasi du erlojuaren kontrako eguneroko borroka. Oinez joan ohi da lanera. Garraio publikoan egoten den jende pilaketek antsietatea sortzen diote. Gorroto du lana. Lana eta lanera joan behar izate hutsa. Youtubeko bideoak ikusten pasatzen du eguna bulegoan. Artista da lanaren tranpan, sistemaren burlan. Lanaz gain, lankideak ere gorroto ditu. Dena da *friendly*, *coworking* eta *after work drinks*. Botagura. Orfidalak jan eta museoak bisitatuz, ironiaz eta umorez bizi da Marisa.

Plazera da errealitatetik ihes egitea. Azken asteetako lagunak dira hiru hauek. Hamaika mundu bizi daitezke. Barre eta negar egin. Beldurrez izoztu eta pozez lehertu. Beraien bizitzaren parte izan eta sentitu. Enpatizatu eta faltan bota. Zein gozagarria den irakurtzea.



Alex Areizaga Albisua

Dokumentalaren zuzendaria

ZUMARRAGA | 1984

“Azken urteetan lan pertsonal handia egin dut neure emozioekin. Dokumentalak lanketa horretan lagundu dit”

Hainbat mendizalek bizkarrean daramaten motxila ikusezinaren barruan arakaten utzi diote Alex Areizagari eta prozesu horretan azaleraturiko sentimenduekin osatu du gaur Durangon ikusgai egongo den 'Itzalak' dokumentala

MENDIA • JOSEBA DERTEANO

Dokumentala ez da igoera baten kontakizuna. Hori baino sakonago arakatu duzu, mendigoizaleen sentimenduetan.

Dokumentalak bizitzan zehar daramatzagun motxila ikusezin horien inguruan hitz egiten du: beldurrak, desioak, zalantzak, oroitzapenak... egunero gurekin daramatzagunak.

Ezin dira ikusi baina haien zama sentitzen dugu. Eta mendiak oso ondo irudikatzen du hori guztia. Mendi garaietan gora doanean, mendizaleak motxila astuna darma soinean, eta ez materialarekin bakarrik. Gauza ikusezinen zama ere igotzen du mendian gora. Gainera, mendian denbora asko dago pentsatzeko.

Nondik etorri zaizu ideia?

Azken urteetan lan pertsonal handia egin dut neure emozioekin. Dokumentalak lanketa horretan lagundu dit. Nire barne prozesu baten isla ere bada. Lagun batek esaten dit nire lanetan neuri buruz hitz egiten dudala, zeharka bada ere. Batzuetan, soinean daramagun motxila ireki eta barrura begiratu beharra dago. Denoi tokatzen zaigu bizitzako uneraren batean edo bestean.

Nortzuk dira dokumentaleko protagonistak?

Bi protagonista nagusi daude: Joseba Iztueta eta Andoni Ormazabal. Iztueta mendizale gabiriarra *Elurretako Lehoinabarra* proiektua egiten ibilitakoa da. Sasoi bateko Sovietar Batasuneko bost mendirik garaian igotzean datza proiektua. Hori egin duen euskaldun bakarra Xabier Ormazabal urretxuarra da. 22 urterekin lortu zuen, eta 23 urterekin hil egin zen, Cho Oyu mendia jaisten zebilela. Andoni bere anaia da. Bizitzaz, pertsonaz eta beldurrez hitz egiten dugu eurekin. Esa-

Mendi Film jaialdia egingo dute gaur San Agustinen

'Itzalak' eta 'Abriendo camino' lanak emango dituzte

Ourdaybi elkarteak Mendi Film jaialdia antolatu du gaurko. 19:00etan izango da, Durangoko San Agustin kultur gunean, eta sarrera doakoa da. Durangon bizi den Alex Areizagaren *Itzalak* dokumentala ez ezik *Abriendo camino* izenekoa ere emango dute. Azken hori Espainiako Alpinismoko Emakume Taldearen inguruko lana da eta Jordania eta Saudi Arabian eskalada bide berriak zabaltzen

eginiko grabazioa biltzen du. Jaialdian zehar "sorpresaren" bat ere egongo dela aurreratu du Areizagak.

Mendizaleen topagune

Ourdaybik hainbat helburu bete gura du jaialdiaren bitartez. Batetik, elkarteak kalera atera eta ezagutarazi gura dute. Bestetik, mendizaleen topagune ere izan gura du. Hartu-emanak sustatzeko, luntx bat egingo dute amaieran.



terako, Andonik anaiaren heriotzaren itzal hori zelan kudeatu duen azaltzen du. Bestalde, Iztuetak erreskate batean parte hartu zuen, *Elurretako Lehoinabarra* proiektuaren barruan. Laguntzeko modurik izango ote zuen ziurgabetasuna, akaso hildakoak zeuden pentsamendua... Egoera horrek bere motxilan arakatzeko bidea ematen dio. Gero, euren bien hausnarketei beste batzuenak gehitzen zaizkie

tea elkarrizketatu bakoitzak bere bidea nola hartzen duen. Esaterako, Messner beldurraz aritu zen. Beldurrik handiena, mendian bertan baino gehiago, mendira joan aurretik pasatzen duela kontatu zigun, gaizki irten daitekeen guztia errepasatzen hasten denean.

Zer iruditu zaie dokumentala protagonistei?

Andoni emozionatu egin zen ikusi zuen aurreneko aldian, eta Iztuetari ere asko gustatu zitzaion. Oro har, oso inpresio onak heldu zaizkit ikusleentzat ere. Doluarekin laguntzen duela esan didate, Andoni doluaren kudeaketaren gainean ere ari delako dokumentalean. Denok ditugu geure doluak, eta jendea une batzuetan identifikatuta sentitu da dokumentalean kontatzen denarekin. Horrek konpentsatu egiten du egindako lan guztia. Azken batean, nire denbora librean egindako lan bat izan da, mendiko lagunekin egindakoa. Gattiken ekoiztetxean ere banabil, eta haren bidez egin dut. Eta ez nuke ahaztu nahi Ekaitz Bengoetxea argazkilariaren laguntza. Proiektua nola errematatu ez nekien momentu batean bere etxera joan nintzen, eszena guztiak *post-it* batzuetan idatzi eta ordenatu genituen, eta dokumentalak gorputza hartu zuen.

Denok ditugu gure doluak eta jendea une batzuetan identifikatuta sentitu da kontatzen denagaz

dokumentalean zehar, motzean bada ere: Reinhold Messner, Nives Meroi, Romano Benet eta Juanjo San Sebastian alpinistenak.

Eta hauei guztiei konfesatoki moduko bat zabaldu diezu, barrua husteko aukera emanda.

Egia esanda, oso elkarrizketa politak irten dira, oso gustura geratu gara. Esaterako, Andoni sarritan entzun dut bere anaia buruz hitz egiten, baina ez dokumentalean bezala. Gero, interesgarria da ikus-

Abadiñoako domekako Green Series BTT probak UCI kategoria izango du

Nazioarteko kategoria izango duenez, maila handiko ziklistak etorriko dira puntu bila



Kadeteetan aurrean ibili daitezke Cafés Dromedario Flotamet taldeko Paul Mendizabal –irudietan– eta Ander Mendizabal.

MENDI BIZIKLETA • JOSEBA DERTEANO

Mendi bizikletako Green Series txapelketak goranzko jauzi bat eman du aurten. Zirkuituko zortzi lasterketak UCIn C2 kategoriakoak dira. Euretari bat Abadiñoan da eta domeka honetan lehiatuko dute. Kategoria berrira egokitzeak lan handiagoa eskatu die antolatzaileei, baina ordainetan maila handiagoko txirrindulariak etorriko dira, batez ere elite mailan, eta zaleek ikuskizun hobegaz gozatu ahal izango dute. Belgikako, Frantziako, Eslobakia, Portugalgo eta beste hainbat

Helmuga inguruko ibilbidea handituz, zaleek denbora gehiagoan ikusiko dituzte ziklistak

herrialdeetako taldeak datoz; txirrindularirik nabarmenenak, beharbada, Julien Hemon gizonetan eta Faranak Partoazar emakumeetan.

Irteera eta helmuga Zelaietako San Vicente galdategiaren inguruan egongo dira. Master mailako txirrindulariak 09:30ean hasiko dira; Emakumeen elite mailakoak

11:10ean, eta gizonen elitekoak 13:00etan. Hasi eta berehala, parte hartzaileek Mendilibarreko harbideko aldapa gogorra igoko dute. Ondoren, baso bideetatik ibiliko dira eta Atxarte egoitzaren ondutik pasatu ondoren galdategira bueltatuko dira. Zirkuituak 4,5 kilometro ditu, iaz baino 300 metro gehiago. Zati bat helmuga inguruko landa baten gehitu dute, han batzen diren zaleek txirrindulariak denbora gehiagoan ikusteko aukera izan dezaten. Eredu horretan txosna bat ere egongo da, Lasterbidean ekimenak ipinita.

Aldapegora eta Zazpi Pago ate joka, hastear da eskualdeko mendi lasterketen festa

Elorrioko proba maiatzaren 11n da, eta Mallabikoa 18an. Lasterketa bietarako izen emateak zabalik daude oraindino



Zazpi Pago lasterketan, korrikalariak Olz ingurutik ibiliko dira.

MENDIA • J.D.

Aurten Durangaldeko mendi lasterketen eskaintza hain da zabala ze, eskualdeko korrikalarietxe inguruan bete dezaketela urteko egutegia. Izan ere, aurten lasterketa berri bi gehitu zaizkio dagoeneko oparoa zen eskaintzari.

Maiatzaren 11n hasiko da eskualdeko egutegia, Elorrioko Aldapegora lasterketaren bigarren aldiagaz. 26 kilometroko proba ez ezik, 15ekoa ere badago aukeran. Besteak beste, Udaltx ingurutik ibiliko dira. Izen ematea maiatzaren 8ra arte dago zabalik, www.aldapegora.com webgunean. Dorsal gutxi geratzen da.

Maiatzaren 18rako Zazpi Pago lasterketa antolatu dute Mallabian, aurten lehenengoz. Kasu

honetan ere, lasterketa luzea eta laburra daude aukeran. Herriko bidezidorretatik eta Oizetik ibiliko dira, besteak beste. Izen ematea maiatzaren 12an amaituko da, www.kronoak.com atarian.

Ekainaren 22an eta 23an Berrizko Amaraune eta Durangoko Tabira auzoko jaietako mendi lasterketen txanda izango da, hurrenez hurren. Uztailaren 20an Asto Trail proba jokatuko da Garain. Irailean Atxondoko Sorginen Lasterketa, Mañariko Mañaritik Atxetara lasterketa berri eta gogorra, eta Zaldibarko Zaldia Trailen bigarren aldia helduko dira. Azkenik, zirkuitua amaitzeko, Zornotzan Aramotz mendi lasterketa egingo dute, urri hasieran.

Jokaldia

Pilotaria bere bakardadean

Sekula ez naiz izan oso mitozalea edo figura ezagun bat mirestekoa, baina, Eskuz Banakako Txapelketan bete-bete gauden honetan, aitortu behar dut asko baloratzen ditudala kirol indibidualetan lehiatzen diren kirolariak.

Urte luzez izan dut esku pilotako buruzko buruko partiduetan parte hartzeko aukera, eta enpatia asko dut kirolari "bakarlariet" norgehiagoka horietan sentitzen dutenarekin, izan pilotariak, tenislariak zein boxeolariak.

Kirol munduan beti bereizi izan dira kirol indibidualak eta taldekakoak, eta ez ditut lerro hauek erabiliko bata bestearen gainetik jartzeko, besteak beste, ez naizelako nor. Hala ere, uste dut desberdinak direla oso bata bestearen aldean, eta, jarraitzaile moduan, kontuan hartu



Aitor Arabiourrutia
Obregón
Trinketa

Enpatia handia dut kirolari 'bakarlariet' sentitzen dutenarekin, izan pilotariak, tenislariak zein boxeolariak

Beste era batera esanda, pilotariak bi aurkari ditu buruz buruko partiduetan: aurkaria eta bere burua

behar ditugula. Esku pilotaren txapelketa nagusia da Eskuz Banakakoa. Fisikoki, agerikoa da partidu gogorragoak direla. Adibidez, pilotariak ez du bikotekiderik lana banatzeko, eta zaindu behar duen espazioa handiagoa da. Baina esango nuke mentalki are gogorragoak direla: kontzentrazio maila handiagoa eskatzen

dute buruz buruko partiduek, horrek dakarren estres eta higadura fisikoarekin. Beste era batera esanda, pilotariak bi aurkari ditu buruz buruko partiduetan: aurkaria eta bere burua bera. Izan ere, banakako lehiaketetan errazagoa da edozein momentutan dinamikaz aldatzea edo, aldagai txiki bat medio, norgehiagokak buelta ematea. Aldagai txiki hori izan daiteke bakardade sentazioak dakarren ikara, eta horrek eragiten di-tuen kontzentrazio falta eta pentsamendu negatiboak.

Gehienetan, pilotariak ondo ezkutatzen ditu bere barneko sentimendu eta sentazioak partiduan zehar, baina horixe da, hain zuzen ere, Banakako Txapelketaren magia: hor ikustea pilotaria bere bakardadean, bere miseria eta bertute guztiekin, bi aurkariak menderatzeko gai izango ote den galdezka.



Traña- Matienako San Prudentzioak





Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

Botikak

BARIKUA, 3 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA,
4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 4 · 09:00-09:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

CAMPILLO, MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

DE DIEGO, INTXAURRONDO 22. - DURANGO

ETXEBARRIA, MONTEVIDEO
ETORB. 2. - DURANGO

FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN
15. - ABADIÑO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA,
4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 5 · 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 6 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA,
4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 7 · 09:00-09:00

CAMPILLO, MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA,
4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 8 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA,
4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

EGUENA, 9 · 09:00-09:00

BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA,
4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak **guztioi!**

GOZATU GOZATEGIA

Zorionak, **Aimar (975. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Gaur, maiatzak 3, Zaldibarko **Oier Abinek** 9 urte egin ditu. Zorionak eta besarkada handi bat eta muxu pilo bat aitite Valentín eta amama Mari Carmenen partez, Kanarietatik!



Apirilaren 30ean Oromiñoako **Lur Iturbe Jaiok** 5 urte egin zituen. Zorijonak, artista! Jarraitu holako alai! Billabona, Abadiño, Durango eta Ijorretako familia! Txokolatezko mosutxo mordue!




Apirilaren 24an **Nuria Teirak** urteak egin zituen. Zorionak! Eta urteak egiten jarrai dezazula.



Zorijonak, **Izei!** Gure etxeko mutil txikiak 9 urte egingo dauz maiatzaren 7an. Gozatu eta ondo pasau urtebetetze egunean eta ondorengo egun guztietan be. Mosu handi bat maite zaitugun danon partez.

Eskelak



**Jose Antonio
Aldekoa-Otalora
Garitaonandia**

2024ko apirilaren 29an hil zen, 83 urte zituela

*Iurretaturun txorijek triste
kantuen dabiz gozieren
Josanton zugaz oroitu guran
egunsenti bakotxien*

Ijorretako lagunak.

Eguraldia

ZAPATUA 14° / 21° ☁

ASTELEHENA 11° / 17° ☁

EGUAZTENA 9° / 21° ☁

DOMEKA 11° / 21° ☁

MARTITZENA 10° / 19° ☁

EGUENA 11° / 24° ☁

**ONDARROA BHI
INSTITUTUA**

LANBIDE HEZIKETA

**AURREMATRIKULAZIOA
maiatzaren 6tik 24ra**

www.ondarroabhi.net · Tel.: 944 287 870

DOAKOA KALITATEZKOA GERTUKOA

Praktikak: inguruko enpresetan, Dual eredu berria eta Erasmus + programa



**Erizaintzako Zaintza
Osagarriak**

erdi mailako zikloa



Haur Hezkuntza

goi mailako zikloa



Gizarteratzea

goi mailako zikloa

"Esker oneko berbak baino ez ditugu jaso, hunkituta gaude"

Fausto Odriozolak 50 urte egin ditu Elcar burdindegian lanean, eta erretiroa hartzea erabaki du. Orain 75 urte zabalduko dendak datozen egunetan itxiko ditu ateak, behin betiko



Fausto Odriozola Burgada

Dendaria

DURANGO | 1960

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Fausto Odriozolak esker oneko berbak baino ez ditu, eta egunotan dendara eskerrak ematera joan zaizkion denekin hunkituta dago. Jubilatze gogotik falta zaiola ikusita eta komertzio txikiak bizi duen egoerak bultzatuta, denda ixtea erabaki du.

Heldu da atea itxeko momentua. Gatxa izan da erabakia hartzea?

Bai, beti da gatxa. Baina urte asko dira lanean, eta gertu dut jubilatzea. Gainera, komertzio txikia min hartuta dago. Nire ustez, badago gurditik tira egin behar duen jende multzo bat, gurasoen

etxea utzi eta euren bizimodua hasi behar dutenak. Ez dut orokortu gura, ez dira denak. Baina bereziki tiratu behar duten horiek beste erosketara ohitura batzuk dituzte. Ez daude komertzio txikian erostera ohituta. Saltoki handietara, Internetara... daude ohituta. Jende heldu eta adinekoentzat izan da *shock* handiena zarratuko dugula jakitea, eta produktu hau edo bestea non aurkituko duten galdetzeraz etorri dira, apur bat aztoratuta. Beste sektore batzuetan berdin gertatzen dabil. Adineko jendea hartu-emanera dago ohituta, berba egitera, begietara begiratzeraz, bai komer-

Denda Durangoko komertzioaren ikur bat dela eta ea zelan itxiko dugun esan digute

tzioetan bai bankuetan. Ez dut esango hobea edo txarragoa den, baina egoera guztiz desberdina da. Teknologia beste portaera batzuk hartzeraz eroan gaitu.

Zer esan dizute bezeroek?

Esker oneko berbak baino ez ditugu jaso, hunkituta gaude, oso eskertuta. Denda Durangoko ko-

mertzioaren ikurra dela eta ea zelan itxiko dugun esan digute. Jendea harrিতa dago, baina, batez ere, eskertuta. Irtenbide gatxa zuten egoerei konponbidea ematen ahalegindu gara beti, eta bezeroak gura zuena lortu zezan ere bai. 15 urte egin barik nituela hasi nintzen dendan, eta 64 urte egingo ditut. Apur bat gehiago jarraitzeak ez zigun ardura izango, baina komertzio txikiaren egoera zein den ikusita, ez duela merezi ohartu gara.

Zerk egin dio minik gehien zuen komertzioari?

Alde Zaharrean saltoki handiak zabaltzeak eragin handia izan du. Baita ibilgailuak sartzea debekatu izanak ere. Inguruko herrietako bezero asko genuen eta horrek asko eragin zigun, komertzio batzuei behintzat bai. Industriagaz ere lan asko egin dugu, gainera.

Irtenbide gatxa zuten egoerei konponbidea ematen ahalegindu gara beti, eta bezeroak gura zuena lortu zezan ere bai

Bezero asko beste toki batzuetara mugitu zen. Orduan hasi zen apur bat gainbehera, gure kalbarioa. Gauzak zailtzen hasi ziren. Komertzio bat gara, baina garraio agentzia bat ere bai. Urte hauetan guztietan 20 lagunek baino gehiagok lan egin dute hemen. Sasoi batean 9 langile geunden dendan.

Denda txiki askok itxi dituzte ateak azken urteotan.

Bai. Eta asko daude gure egoeran. Ez da belaunaldi aldaketarik ikusten, nahiz eta beti pentsatu izan dudana Alde Zaharra zela komertzioari eusten zion bakarra. Dendarigaz hartu-eman zuzena galtzeak ematen dit pena. Kontaktuzuzena, aholku ematea... Gauza askok eragin dute egoera hau, eta ez da erraza aurre egitea. Globalizazioa da finean.

Orain zer egingo duzu?

Ez naiz geldi geratuko. Baditut zaletasunak eta orain arte ez dut astirik izan horietaz disfrutatzeke.

Lau-hortza

Sergio Murillo Corzo
Ekonomialaria



Akordiotik ongizatera; 1976tik 2024ra

Bestelako garaiak ziran. Batzarrak egiteko zailtasunak nabarmenak ziran; gai zehatz batzuek hausnartzeko batzarrak antolatzea are zailagoa zan, baita arriskutsua ere. Gaur nire lantokia dan Orueko muiño hau, Euba izenez ezagutzen zan inguruetan... eta kongresu baten lehen erdia bertan hezur-mamitu zan. 1976ko abuztua zan. Isilpean, 5 eguneko gogotat-aldia. Ostean, gauzatu zan Eibarren bigarren erdia.

Maiatzaren lehenaren ostetik datoz hausnarketok. Herri bezala, lan-harremanen esparruan daukaguzan gaitasunei eta eskuduntzei buruzko pentsamenduak darabildaz buruan. Izan ere, ez gagoz 1976ko garai hareetan lez, agerikoa da. Askok hobeto gagoz, bai batzartzeko eskubideei jago-konean, bai lan-harremanei jago-konean, besteak beste. Herri honen aurrera egiteko indarra akordioa da, eta izan da. Bestela, zeri zor jako lege esparru berbera daukien herriek, guk orokortuta daukagun 35 orduko lan astea erdiesteko ekinaldia? Akordioek eraiki dabe errealitate hori, aurrerabidearen aldeko lan-harreman kolektiboetan akordioak gauzatu.

Niretzat daukat gogoetak iragarri beharrean, egin eta ostean agertu beharko gendukezana han ondorioztatutakoak. Ez da 1976ko haretatik berreskuratu daitekeen bakarra; hango "gizaki eta Herri libre eta arduratsuen aldeko lana"-ren goiburua ere oso baliagarria dogu garaiotan. Orduetik hona bakoitzak bere kantuan pentsatu daiala zertan ibili dan, baina arduratsu jokatzek akordioari bidea zabaldu beharko leuskio, ongizatearen bidean.



ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze-lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa

www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

AURREMATRIKULA (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)
Maiatzak 6tik 24ra arte

